

Funtsezko Elkarteak

Tech4all-en proiektuak funtziona dezan, bost bazkide beharko ditu, hasierako kapitala inbertituko dutenak proiektuak aurrera ateratzeko. Horrez gain, Tech4all-ek funtsezko elkarteak eta hornitzaileak izango ditu bere enpresarekin lotuta, beti produktuen stocka izateko eta horrela bezeroen betebeharrak asetzeko eta stock gabezirik ez izateko.



Tech4all bost bazkideek osatutako Sozietate Mugatu bat da. Sozietate hori osatzeko 3000€ bilduko dute. Diru hori ehuneko berdinetan bilduko dute; hau da, bazkide bakoitzak diru kopuru bera jarriko du sozietatea sortzeko. Horrela bazkide bakoitzak boto bat izango du erabakiak hartzeko.

Bazkideez gain, enpresak aliantza egingo du beste enpresa batzuekin eta horrela produktu teknologiko matxuratuak erosiko die enpresa handiei. Horrela prezio baxuan erosiko die enpresa handiei eta Tech4all-ek matxura konpondu lantegian eta saldu egingo die bere bezeroei. Bezeroak, produktu berria erosi beharrean, merkeago erosiko diote Tech4all-i eta horrela enpresa eta bezeroak irabazten irtengo dira. Enpresa hauen artean, Apple, Samsung eta Huawei izango dira enpresarekin lanean eta produktu matxuratuak prezio baxuagoan erosiko dizkio.

